

Hasi da hautespen prozesua graduetan

2013/06/24

Ekainaren 24an dokumentazio ekarri duten ikasleei jakinaraziko zaie onartuak izan diren edo ez. Onartuen kasuan hemen kontuan izan beharrekoak:

Matrikula epea: uztailaren 1etik 8ra (biak barne)

Onartua izan direnak HUHEZIRA etorri beharko dira matrikula egitera, ikasketa ematen den campusera, (Hezkuntza, Eskoriatzan; Ikus-entzunezko komunikazioa, Aretxabaletan), honako datetan: **uztailaren 1etik 8ra**.

Ordutegia

- 9:00-12:30etara (Eskoriatzako campusean N-0.9 aretoan)
- 8:30-12:30etara (Aretxabaletako campusean A-0.6 gela)

Matrikula egiteko ekarri beharrekoak

- Argazki bat, originala, karneterako neurrikoa (atzean izen-abizenak idatzita)
- NAREN fotokopia.
- Kontu korronteko libretaren fotokopia.
- Familia Ugariaren Liburu eguneratua, Familia Ugaria izanez gero.

Oharrak

1. **Ez ohiko epea** (selektibitatea 2. txandan egin behar baduzu): **uztailak 15**.
2. Uztailan plaza libreak geldituz gero **irailaren 6an beste matrikula egun bat** zabalduko da.

Zalantzaren bat izanez gero, deitu zenbaki honetara: **943 71 41 57**

